



# EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA


## EAEko ekonomia %1,9 haziko da 2024an

### BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2024KO HAZKUNDEA

**%1,9**




Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2024-2025 biurtekorako taula makroekonomikoa berrikusi du. Agertoki berriak ia 2023 osoan bizitako egonkortasunaren irudia luzatzen du eta aurtengo bigarren erdian goranzko joera txiki bat marraztuko du. Zehatz-mehatz adierazita, 2024rako BPGa %1,9 haztea aurreikusuten da, eta 2025erako, berriz, bi hamarren gehiago haztea espero da.

Barne eskaria izango da urte honetarako aurreikusitako BPGaren ia hazkunde osoaren erantzulea,

hazkunderari 2,1 ehuneko puntu ekarriko baidizkio, eta kanpo saldoa, berriz, bi hamarren kenduko dizkio. 2024. urteko bigarren zatian interes tasak jaisteko aukera emango duen Europa mailako inflazio kontrolatuaren egoerak familien kontsumoa suspertuko du, eta aldagai hori aurtentzen %1,8 igo daiteke. Finantzaketa baldintzen balizko hobekuntza horrek ere eragin positiboa izango du inbertsioan, eta, Next Generation EU funtsetatik jasotako laguntzekin batera, inbertsioa %2,6raino haziko da.


### GASTUA AZKEN KONTSUMOAN

Urte arteko aldakuntza tasa




### KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




## INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




## ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



## ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Eskaintzari dagokionez, kanpo eskariaren ahuleziak, materialen kostuei buruzko ziurgabetasunak eta kreditu erakundeek hipoteka kredituak eskuratzeko edo etxebizitzak berritzeko finantza baldintzak errazteko aukerak oztopatu egingo dituzte industriaren eta eraikuntzaren sektorearen aurtengo lehen hilabeteetan, baina urtearen bigarren erdian bultzada hartzea espero da. Azkenik, zerbitzuen sektoreak egonkortasuneko profila erakutsiko du 2024an eta 2025ean.

Lan merkatuaren indarra da EAEko ekonomiaren erresistentzia azaltzen duen beste gako bat. 2024an, lanaldi osoko lanpostuen kopuruak bizi hazten jarraituko du, eta %1,8 handituko da.


## ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



## LANGABEZIA TASA

Ehunekoa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.